



❖ UDALA

Kiroldegia, udala eta liburutegiaren ordutegia

Aste honetan, Gabonetako oporrak direla eta, ordutegi berezia izango da kiroldegian, udalean eta Biteri kultur etxea eta liburutegian.

- Udala, gaur eta bihar irekita izango da, baina abenduaren 31etik urtarrilaren 6ra bitartean itxita izango da, aipatutako bi egunak barne.
- Biteri kultur etxea eta liburutegia, gaur eta bihar irekita izango dira; abenduaren 31n goizez irekiko dituzte bakarrik, 10:00etatik 13:00etara. Urtarrilaren 1etik 6ra itxi egingo dituzte (biak barne).
- Kiroldegia, gaur eta bihar irekita izango da, baina abenduaren 31 eta urtarrilaren 1ean itxi egingo dute. ||

❖ ITURRITXO

Haur txokoa gaur eta bihar

Latsunbe eta Marieluts auzotako elkarteak haur jokoak antolatu ditu gaur eta biharko. 6 eta 12 urteko haurrentzako prestatu dituzte eta eskulanak eta jolasak egiteko asmoa dute. Gaur eta bihar goizeko 10:30etatik 13:00etara, Iturritxo auzo elkartearen lokalean, Latsunbe Berrin. ||

❖ ANTZERKIA

Txotxongillo emanaldia gaur arratsaldean

Euskal mitologiako pertsonajeak, Galtzagorriak, ezagutzeko aukera izango da gaur Txotxongillo taldearen eskutik. Emanaldia 3 eta 12 urteko haurrentzat da egokia eta 55 minutu irauten ditu. Arratsaldeko 17:00etan izango da, Biterri kultur etxean. ||

Oier eta Aimarren garaipenak borobildu zuen atzoko pelota jaialdia

Aimar Olaizolak eta Oier Mendizabalek 22 eta 16 irabazi zuten, Berasaluze VIII eta Belokiren kontra. Bi partiduen artean omenaldia egin zieten pelota klubetako arduradunei.

BURUNTZALDEKO pelota jaialdiak Buruntzaldeko frontoiak pelotariz bete zituen atzokoan. Egun haundia izan zen bai Buruntzaldeko klub ezberdinetako pelotari gazteentzat, bai klubetako arduradunentzat eta baita eskualdeko pelotazaleentzat eta. Izan ere, urte osoan egindako lana kalera atera eta egun ederra pasatzeko aukera izan zuten.

Arratsaldean pelota jaialdia kiroldegian

Arratsaldean, pelota jaialdi ikusgarria izan zen kiroldegian. Frontoia jendez beteta zela, profesional mailako pelota partidua jokatu ziren. Aurreneko partiduan, Aratz Mendizabal eta Argotek 22 eta 10 irabazi zuten Saralegi eta Oteizaren kontra. Bigarren partiduan, Oier Mendizabal eta Aimar Olaizolak irabazi zuten, 22 eta 16, Berasaluze VIII eta Belokiren kontra. Partidu luzea izan zen, borrokatua eta landua. Aimar Olaizolak jarri zuen partiduko erritmoa eta Oier Mendizabalek ere lan txukuna egin zuen. Aimarrek 6 tanto egin zituen gantxoaz, 3 saketik eta beste 3 dejadaz. Berasaluze VIIIk, gantxoaz 3 tanto egin zituen, 3 sakez eta beste 2 dejadaz.

Omenaldia

Jaialdian, bi partiduen artean, pelota elkarteetako kideei omenaldi txiki bat egin zieten. Hernanitik, Felix Zabalak, Jose Miguel Azurmendik, Rufino Rekaldek, Mikel Salaberriak eta Miguel Ezpeletak jaso zituzten oroigarriak. ||



Partidu ikusgarria jokatu zuten, luzea, borrokatua eta landua.



Pelota elkarteetako ordezkariak omendu zituzten jaialdiko bi partiduen artean.

GABONETAKO ZOZKETA

Ekarri zuen marrazkiak gure bulegora eta parte hartu PORT-AVENTURARA joateko egingo dugun zozketan

BALDINTZAK:
Gaia: "BIDAIK"
Adina: 4-11 URTE
EPEA: urtarrilaren 8a baino lehenago.

ZOZKETA EGUNA: URTARRILAREN 9a GURE BULEGOAN, ARRATSALDEKO SEIRETAN.

SARIA:
Pazko astea (apirilaren 13tik 19ra)
egonaldia Port-Aventuran
2 heldu eta 2 umeentzako + 2 egunetako sarrerak

HERNANI BIDAIK
Urbietan, 6
943 33 00 49
hernanib@teleline.es
www.hernanibidaiak.com

GARAYAR AVTOBYSAK

Zerbitzu diskrezionalak (ESKOLARRAK)

Autobus zerbitzua Linea erregularrak

Hernani - Aiete - Donostia - Aiete - Hernani
Andoain - Urnieta - Hernani - Donostia - Hernani - Urnieta - Andoain

Jaregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658
Fax: 943 331 208 e-maila: mgarayar@facilnet.es 20120 Hernani (Gipuzkoa)

☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
✚ FARMAZIAK ● Egunez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022 ● Gauez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Aldaketa gutxi, giro argia izango da. Kostatara gerturatu ahala ostarte zabalagoak ikusi ahal izango dira. Tenperatura, egunez, 10-14 °C artekoa izango da.

BIHAR Barnealden lainoak ugartu egingo dira, baina kostaldean ostarteak izango dira nagusi. Tenperatura berdintxu.

◆ PELOTA

Ohorezko mailan jokatu dute datorren urtean Iñaki Esnal eta Aitor Gorrotxategik

Sekulako lorpena izan da, izan ere 11 urte dira Hernani mailarik altuenean ez dagoela, senior mailan.

IÑAKI Esnal eta Aitor Gorrotxategik Ohorezko mailan jokatu dute datorren urtean. Ostiralean jokatu zuten igorako partidua, Elgoibargo Atxotegi eta Loiolaren kontra, eta 22 eta 14 irabazi zuten. Hernaniko pelota elkarteko arduradunen esanetan, sekulako lorpena izan da, izan ere azken 11 urtetan, senior mailan, Hernani bigarren mailan izan da.

Gutierrez eta Irazustabarrena txapelkun
Jubenil mailako Gipuzkoako Txapelketako finalak jokatu dituzte Hernaniko pelotariak asteburuan, Ibarren. Aurrez aurre Hernaniko bi bikote izan dira txapela lortzeko lehian: Eli Gutierrez eta Amaia Irazustabarrenak osatutako bikotea, alde batetik;



Gipuzkoako Txapelketako finaleko argazkia, Ibarren.

era bestetik, Irati Ugalde eta Mirari Pagolak osatutako bikotea. Azkenean, aurrekoek lortu dute Gipuzkoako txapelketa 30 eta 22 irabazita.

Azpimarratzekoa da, 18 tantotara iritsi arte oso partidu berdindua izan zela. Hortik aurrera tartea haunditzen joan zen, nekea medio. ||

🔗 Jasota Bezala

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. «Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak».

Adiskide eta herrikide guztioi, agur t'erdii!

Atsegin handiz eta esker onez hartu dugu zuen gurekiko elkartasunezko ekimen honen berri. Zinez berri pozgarria izan baita gureganako agertu duzuen presuntasuna eta atxikimendua. Mila esker guztioi, bihotz-bihotzez.

Duela urtebetetsu irudikatzen genuen egoera politiko eta soziala larriagotu egin da, zalantzarik gabe. Mundu osoa kolpatzen duen krisi ekonomiko larria aski ez balitz, Euskal Herrian blokeo politikoa eta indarkeria-errepresio binomio tragikoa nagusitzen ari dira berriro ere, batak eta besteak dakartzaten sufrimendu, frustrazio eta etsipen mingotsekin batera. Atzerako konponbiderik ez duten heriotz bortitz justifikaezinak, atxiloketa eta tortura basati beldurgarriak, betirako zauri fisiko eta psikologikoak uzten dituzten leherketak, bizitza osorako kartzelaldi inhumanoak, urte luzetan heriotz edota bahiketa mehatxupean bizi beharra... Zerrenda luze bezain latza, nondinahi begiratzen dela ere.

Ukaezina da Euskal Herria aspaldi honetan jasaten ari den

era guztietako errepresio eta indarkerien zama eskerga, akabaerarik gabekoa dirudiena. Abertzale garenok eta giza nahiz gizarte sentiberatasunik dugunok ezin gara mutu eta gelditi egon horren guztiaren aurrean. Gure Herriak aspaldietatik sufritzen duen «...-ekintza-errepresioa-ekintza-errepresioa...» kateamendu tragiko amaigabetik askatzen eta sendatzen ahalegindu behar dugu denon artean eta gerora gabe, nork bere ahal eta erantzukizun araberak.

Hartara, indarkeria, errepresio eta eskubide-ukapen mota guztien gurgil zoro honetatik atera nahi badugu, ezinbesteko iruditzen zaigu, besteak beste, giza eskubide guzti-guztiak oroztat eta salbuespenik gabe errespetatu eta errespetaraziko dituen ekimen abertzale eta ezkerkiar sendo zabal bat bultzatzea. Ez dagokigu guri, orain eta hemen, ekimen bateratzaile horren eitea eta ezaugarriak zehaztea. Baina bai uste dugu jadanik azpimarratu behar dugula Euskal Herriaren etorkizuna eta oraina ekimen zibil politi-

ko handi baten beharrea dau dela. Hau da, bide politiko zibil soilak baliatuko dituen elkargune eta elkarbide abertzale aurrerakoi zabal baten beharrea gaude, gure Herriaren subiranotasunaren eta bake justu baten alde lan egingo duena, borrokamolde politiko sozial hutsak ez direnak ontzat hartuko ez dituelarik. Horixe dateke, gure uste apalean, zentzuzko bide eraginkor bakarra abertzale eta ezkerkiar sentitzen garen guztion indarrak bildu eta Euskal Herri euskaldun, burujabe eta solidario bat eraiki nahi badugu eta, gerturago begiratu, hamarkada luzetan batzuek eta besteek jasaten ari garen sufrimendu izugarri honi amaibiderik eman nahi badiogu.

Mila esker deneri eta berrakada bero tinko bana guztiei!! Gora Euskal Herria euskalduna eta askatua!

2008ko abenduaren 28ko ekitaldirako (Demoek Mugerren antolatutakoa).

Logroñoeko espaketik, Jose Luis Alvarez Santacristina eta Kepa Pikabea Ugalde.

◆ SASKIBALOA

Gabonetako torneo jokatu da gaur eta bihar kiroldegian

Guztira sei talde ezberdinen arteko partiduak izango dira torneoan.

GABONETAKO saskibaloitako torneo jokatu da gaur eta bihar Hernaniko kiroldegian. Hernaniko saskibaloiko hiru taldeak jokoan ikusteko aukera paregabea izango da, beraz. Aurrez aurre, La Salle, Easo, Alde Zaharra, Inter eta Atco San Sebastian taldeak izango dituzte. Partiduak 16:15etatik aurrera jokatu dira.

Bestalde, gaurko ONCEko zembakiarekin zozketatuko da saskibalo elkarteko Gabonetako saskia. ||

Gaurko partiduak:

• Kadeteak:
Hernani K.E.-Easo.
16:15etan.

• Jubenilak:
Hernani K.E.-La Salle.
18:00etan.

• Seniorrak:
Teklan Hernani K.E.-Alde Zaharra. 19:45etan.

Biharko partiduak:

• Kadeteak:
Hernani K.E.-Atco Sn. Sn.
16:15etan.

• Jubenilak:
Hernani K.E.-Easo.
18:00etan.

• Seniorrak:
Teklan Hernani K.E.-Inter.
19:45etan.

◆ PORTU AUZOA

Malabar tailerra gaur arratsaldean

Malabar tailerra izango da gaur arratsaldean, Portun, arratsaldeko 18:00etan hasita, auzo elkartearen lokalean.

Bihar Errealari buruzko hitzaldi solasaldia izango da, arratsaldeko 19:30etan, leku berean. ||

◆ KARITAS ZERBITZUA

Ez da zerbitzurik izango urtarrilaren 8ra arte

San Joan Bataiatzailearen parrokitik jakinarazi dute ez dela karitas zerbitzurik izango urtarrilaren 8ra arte. Horrez gain, aurrerantzean, zerbitzua Kale Nagusia 13tik Izpizua 3ko parroki etxera aldatuko da. Honako ordutegia izango du: asteartetan, arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara eta ostegunetan 11:00etatik 12:00etara. ||

◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

Etxe berria estrenatu ezazu, hemendik 18 hilabetera, 2 logela, aszensora, 60m² (249.000euro). Deitu: 671 124 594.

Etxeko konponketak egiten dira: iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta personalizatuak. Gaztetako tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Antiacne tratamendua, "Manchas". Plataforma bibratzailea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta berterbrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Itziño Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajusterik neurologiko eta berterbrala, reflexologia, auriculoterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)